**Espediente mota: Administrazio kontratazioa**

**Kontratua: Udako liburutegia ekimena** lanak *egiteko* kontratu mistoa, prozedura ireki oso sinplifikatu bidezko esleipena.

## "UDAKO LIBURUTEGIA" EKIMENA EGITEKO

## KONTRATU MISTOAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

## PROZEDURA IREKI OSO SINPLIFIKATU BIDEZKO ESLEIPENA

### 1. Xedea:

Herritarrentzako "Udako liburutegia" zerbitzua ematea.

### 2. Egitasmoaren justifikazioa:

Liburutegiak irakur-zaletasuna sustatzeko ekintza plan estrategikoarekin bat etorriz, kultura arloko sorkuntza lanari bidea zabaltzea lehentasunezko egitekoa da, irakur-zaletasuna sustatzeko. Horregatik, "Udako liburutegia" ekimenaren bitartez, Bermeoko herritarrei aukera eman nahi zaie liburutegiko funtsak ezagutzera ematea, beste esparru batean, liburutegitik at eta udaroan..

Iaz hasi zen ekimen honekin eta bere bidea jarraitzeko asmoa dago; zentzu horretan epe ertain-luzera begira, lan egiteak sendotasuna emango dio egitasmoari eta emaitzak izango ditu etorkizunean.

Udako liburutegia ekimena 2023-2026 aldirako Plan Estrategikoaren helburu orokorra lortzeko zehaztu diren lan ildoekin bat datorren lan-proposamena landu nahi da, eta era berean, kontratuak irauten duen denboran, eta urte bakoitzeko ebaluazioaren arabera, egitasmoa egokitu egingo da, helburuak lortu ahal izateko.

### 3. Helburuak:

- Liburutegia beste esparru batean ezagutzea eta zabalkundea egitea.
- Liburutegiko funtsa gehiago erabiltzea.
- Udaroan liburutegi zerbitzu zabalagoa eskaintzea.
- Irakurzaletasuna sustatzea eta literaturaz gozatzea.
- Irakurle berriak sortu.
- Literaturarenganako binkulu afektiboa eraikitzea.

Herritarren (haurren, helduen eta familien) eskura, maileguan hartzeko: eleberriak, aldizkariak eta DVDak mailegarri egongo dira.

Joxe Miel Barandiaran Udal Liburutegia. Lamera z.g. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9151 Faxa: 94 688 0367
liburutegia@bermeo.eus / www.liburutegi.bermeo.eus IFK: P4802100J

CSV: 07E7000C7BD100O9N9D0W6Y1E5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C7BD100O9N9D0W6Y1E5

Sinadurea eta datea
BIOTZA ARENAZA URIBASTERRA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-LIBURUTEGI ARDURADUNA - 12/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/05/2023 14:17:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IOS_0006
Datea: 30/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

4. Lanaren ezaugarriak:

Lizitazioan parte hartu gura duen enpresak zerbitzu hau emateko; alde batetik, bideratuko duen pertsona zerbitzua euskaraz emango duela bermatu beharko du; herritarrekin harreman zuzena duten jarduerak egin behar baitira. Hortaz, herritarrak aukeratzen duen hizkuntza ofiziala erabili beharko da.

Pertsona dinamikoa eta aisialdiako begiraleko ikasketak izatea kontuan hartuko dira. Bestetik, zerbitzua eskaintzeko, esleitutako enpresak etxola bat ekartzeaz arduratuko da. Etxolaren neurriak hauek izan beharko dira: 4x2m.

Lan planifikatua egingo da, beraz, eta pausuak aurreratu ahala, ebaluatu egingo da, hurrengo lanak eta pausuak zehaztu ahal izateko. Ekimenaren amaieran, emandako zerbitzuaren ebaluazioa egingo da datuekin.

Esleipendunak Udalaren Liburutegiaren ardurapean eta beraien gomendioak gogoan lan egingo du. Horretarako, behar den guztietan, Liburutegiko Teknikariak proposatzen dizkionkoordinatzeko eta lanen jarraipenerako baliabideak erabiliko ditu, bai bilera bidez, baita beste bide batzuetako komunikazio bidez.

Udako liburutegia ekimena udaldian eskainiko da Burujabetasun zelaian. Aste osoan zehar irekita egongo da goiz eta arratsaldez herritar osok disfrutatu ahal izateko.

Langileen kontratu-lotura enpresa adjudikaziodunarekin baino ez da izango (aurrerantzean, adjudikazioduna). Hortaz, adjudikaziodunaren kontura izango dira lan-kontratu horren ondoriozko betebehar guztiak, eta Bermeoko Udalak ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain adjudikaziodunak kontratatutako langileei dagokienez, ez baitute inolako lanharremanik Udalarekin.
Esleipendunak ezin izango dio Udalari, inola ere, langile horien lan-baldintzetan edo ordainsarietan izandako hobekuntzen kostua egotzi, hobekuntza hori hitzarmen kolektiboen ondorio izan edo zeinahi itun edo akordioen ondorio izan, esleipenprezioa igotzea ekar badezakete.
Esleipenduna arduratuko da zerbitzua ematen duten langileak ordezkatzeaz gaixotasun, opor, baimen, lizentzia eta abarren kasuetan, zerbitzua beteta gera dadin, baldintza tekniken agiri honetan ezarritako baldintzetan.

5. Kontratua burutzeko epea

Hilabetekoa izango eta honela banatuta: uztaileko azken hamabostaldian eta abuztuaren lehen hamabostaldian.

Ordutegiari dagokionez, astelehenetik larunbatera eskainiko da zerbitzua eta honela banatuta:

Astelehenak arratsaldez, 16:00etatik 19:00etara

Azteartean, azteazkenean, ostegunean eta ostiralean: 11:00-14:30 / 16:00-19:00

Larunbatetan: 11:00-14:30etara



CSV: 07E7000C7BD100O9N9D0W6Y1E5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C7BD100O9N9D0W6Y1E5

Sinadurea eta datea
BIOTZA ARENAZA URIBASTERRA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-LIBURUTEGI ARDURADUNA - 12/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/05/2023 14:17:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IOS_0006
Datea: 30/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Zerbitzuak epe horretan egiten ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

## 6.Aukeraketa irizpideak:

Eskaintza ekonomikoa izango da (80 puntu) Puntuazio gehiena eskaintza merkeenaaurkezten duenari emango zaio.
Eskaintzak kualitatiboa izango da (20 puntu). Zerbitzua bera nola emango den garatzen duena delako kalitatearekin loturik.

Gehienezko puntuazioa: 100 Puntu

## 7.Kontratuaren prezioa

Kontratu honen prezioa, luzapenak barne, 20.000 eurokoa da, BEZa barne.



CSV: 07E7000C7BD100O9N9D0W6Y1E5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C7BD100O9N9D0W6Y1E5

Sinadurea eta datea
BIOTZA ARENAZA URIBASTERRA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-LIBURUTEGI ARDURADUNA - 12/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/05/2023 14:17:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IOS_0006
Datea: 30/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia